2.2.8.- MUJERES VÍCTIMAS DE VIOLENCIA MACHISTA	88
2.2.8.1.- Centro de acogida inmediata.	88

2.2.8.2.- Centros de acogida (media estancia).....	89
2.2.8.3.- Servicio de atención sociojurídica y psicosocial dirigido a las víctimas de maltrato o de actos contra la libertad sexual.....	90
2.2.9.- SERVICIO DE COORDINACIÓN A URGENCIAS SOCIALES	91
2.2.10.- PRESTACIONES ECONÓMICAS	92
2.2.10.1.- Prestaciones económicas derivadas de la ley 39/2006, de dependencia.....	92
2.2.10.2.- Pensión No Contributiva.....	99
2.2.10.3.- Prestaciones de la ley de integración social de personas con minusvalía.....	101
2.2.10.4.- Pensiones del Fondo de Bienestar Social	102
2.2.10.5.- Ayudas económicas de inclusión social	104
2.2.10.6.- Ayudas económicas del servicio de protección a la infancia y la adolescencia.....	105
3.- CENTROS PROPIOS Y ORGANISMOS AUTÓNOMOS	107
3.1.- Centros propios.....	107
3.1.1. Centro Gerontológico Egogain	107
3.1.2. Hospedería de la Casa del Mar de Pasaia	108
3.2.- Organismos autónomos.....	109
3.2.1 Fundación Uliazpi.....	109
3.2.2 Kabia	111
4.- SERVICIOS TRANSVERSALES	112
4.1.- Secretaría Técnica.....	112
4.1.1.- Licitaciones	112
4.1.2.- Derecho de acceso a la información pública	116
4.1.3.- Oficina de atención al público	116
4.1.4.- Servicio de información telefónica	117
4.1.5.- Consultas, quejas y sugerencias	118
4.1.6.- Títulos de familia numerosa	119
4.1.7.- Certificados.....	120
4.1.8.- Registros de Entrada y Salida.....	120
4.1.9.- Formación del personal	120
4.1.10.- Registro Foral de Servicios Sociales.....	121
4.1.11.- Iniciativa social.....	121
4.2.- Gestión económica	126
4.3.- Inspección	126
4.4.- Inversiones.....	130
4.5.- Innovación y gestión del conocimiento	133
4.6.- Información estadística.....	139
5.- NORMATIVA APROBADA EN 2023	140

1.- SARRERA

1.1.- Xedea, ikuspegia eta baloreak

Gure **xedea** da Gipuzkoako Foru Aldundiaren erantzukizun publikoa betetzea, hau da, gizarte zerbitzuen sistemako eskumen esparruaren barne, herritarren eskubideak bermatzea, beste gizarte eragileekin elkarlanean, Gipuzkoako pertsonen bizi baldintzak eta kohesio soziala hobetzen laguntzeko.

Departamentu honen ikuspegia honako hau da, udalekin, hirugarren sektoreko entitateekin, bestelako administrazio publikoekin eta bestelako laguntzaileekin, Gipuzkoan gizarte zerbitzu sare integratu eta partekatua eraikitzeko prozesua sustatzen duen erakundea izatea, eta bere jarduerari esker, Gipuzkoako sare soziala, solidaritatea eta kohesio soziala indartzea.

Erabiltzaileen bizi kalitatean eta ongizatean eragin positiboa duten zerbitzu eta gizarte laguntzak ematen dituen erakundea izatea, eta prestazio horien aurrean, Gipuzkoako herritar guztiak harro sentitzea.

Artatutako pertsonen bizi kalitatea sustatzeko arreta eredia ezarri du Gizarte Politikako Departamentuak; eta horretarako, printzipio hauek hartu ditu oinarritzat, besteak beste:

- Pertsonalizazioa
- Osotasuna
- Pertsona bere harreman sarearekin batera tratatzea
- Gertutasuna

1.- INTRODUCCIÓN

1.1.- Misión, visión y valores

Es nuestra **misión** cumplir con la responsabilidad pública de la Diputación Foral de Gipuzkoa de garantizar los derechos de la ciudadanía, dentro del marco competencial del sistema de servicios sociales, para contribuir a la mejora de las condiciones de vida de las personas y a la cohesión social en Gipuzkoa, desarrollando esta labor en colaboración con otros agentes sociales.

La visión del Departamento es ser una institución que, junto a los ayuntamientos, organizaciones del tercer sector, otras administraciones públicas y otros colaboradores, promueve la construcción de una red integrada y compartida de servicios sociales en el territorio, y que, con su actuación, refuerza el tejido social, la solidaridad y la cohesión social en Gipuzkoa.

Ser una institución que consiga que los servicios y ayudas sociales que facilita tengan resultados en la calidad de vida y el bienestar de las personas usuarias, y sean motivo de satisfacción para el conjunto de la ciudadanía de Gipuzkoa.

Ser una institución que ha definido un modelo de atención orientado a promover la calidad de vida de las personas atendidas, que esté basado, entre otros, en los siguientes principios:

- Personalización
- Integralidad
- Abordaje de la persona junto con su red relacional
- Proximidad

- Jarraitasuna
- Akonpainamendua
- Onuradunen erantzukizuna
- Autonomiaren sustapena
- Eskubideen ikuspegia
- Plangintza
- Aurrea hartzea eta prebentzioa
- Continuidad
- Acompañamiento
- Responsabilidad de las personas destinatarias
- Promoción de la autonomía
- Enfoque de derechos
- Planificación
- Anticipación y prevención

Bere ikuspegia betetzeko kudeaketa ezartzen duen erakundea izatea; horretarako, abian jarritako jarduerak, artatutako eta lagundutako pertsonen bizi kalitatean eta asebetetzean dituzten ondorioak neurtu eta aztertzen ditu.

Ser una institución con una gestión orientada al cumplimiento de su visión, que mide y conoce los resultados de sus actuaciones en la mejora de la calidad de vida y en la satisfacción de las personas a las que acompaña y atiende.

Aurreko guztia, artatzen ditugun pertsonen eta gizarte-arretako sarea osatzen dugun administrazio eta erakundeetako langileen parte-hartzearekin egiten duen erakundea izatea.

Ser una institución que hace todo lo anterior con la participación de las personas a quienes atendemos y de las personas trabajadoras de las diversas administraciones y organizaciones que conformamos nuestra red de atención social.

Baloreak:

- Erantzukizun publikoa
- Gardentasuna
- Pertsonen orientatua
- Pertsona eta kolektiboen erantzukizuna, autonomia eta jabetasuna.
- Pertsonalizazioa
- Gertutasuna
- Partaidetza
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna
- Justizia soziala
- Ehun sozial eta komunitarioa indartzea

Valores:

- Responsabilidad pública
- Transparencia
- Orientación hacia las personas
- Responsabilidad, autonomía, empoderamiento de personas y colectivos
- Personalización
- Proximidad
- Participación
- Igualdad entre mujeres y hombres
- Justicia social
- Fortalecimiento del tejido social y comunitario

1.2.- Egitura eta funtzioak

2023ko uztailaren 30eko 4/2023 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzen dituenak dio, eginkizun esparru eta funtzio hauek dagozkiola Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuari:

- Mendekotasuna dutenentzako arreta.
- Gizarte zerbitzu komunitarioak.
- Asistentzia zentro propioak nahiz hitzartuak.
- Desgaitasuna.
- Enplegu politikak aktiboak.
- Ekintza komunitarioa eta gizarte-inklusioa.
- Adingabe babesgabeak.
- Adopzioak.
- Indarrean diren arauetan esleitzen zaizkion gainerako eskumenak erabiltzea.

Departamentu horri atxikitzen zaizkio Uliazpi Fundazioa eta Kabia foru organismo autonomoak eta Adinberri Fundazioa.

Esleituta dituen funtzioak garatzeko, Gizarte Politikako Departamentuak, zerbitzuen prestazioa antolatzeko bi modu ditu: bai zuzenean, baliabide propioak erabiliz, bai ekimen pribatuarekin lankidetzan, hain zuzen ere 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, V. titulu

1.2.- Estructura y funciones

El Decreto Foral 4/2023, de 30 de junio, de determinación de los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de sus áreas de actuación y funciones establece que al Departamento de Cuidados y Políticas Sociales le corresponden las siguientes áreas de actuación y funciones:

- Atención a la dependencia.
- Servicios sociales comunitarios.
- Centros asistenciales propios o concertados.
- Discapacidad.
- Políticas activas de empleo.
- Acción comunitaria e inclusión social.
- Menores en desprotección.
- Adopciones.
- Las demás facultades que se le atribuyan por la normativa aplicable

Se adscriben a este departamento los organismos autónomos forales Fundación Uliazpi y Kabia y la Fundación Adinberri.

En el desarrollo de las funciones que tiene encomendadas, el Departamento de Políticas Sociales organiza la prestación de los servicios bien directamente, a través de sus propios medios, bien con la colaboración de la iniciativa privada mediante fórmulas de relación previstas en el título V de la Ley



xedatutako formulen arabera.

12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.

Gizarte Politikako Departamentuaren **egiturari** dagokionez, Foru Diputatua da departamentua zuzendu eta antolatzeko burua. Foru Diputatu hori da Departamentuko organo gorena, baita Diputatuen Kontseiluko kidea ere.

En cuanto a la **estructura** del Departamento de Políticas Sociales, ésta se organiza bajo la dirección y organización de la Diputada Foral que, además de miembro del Consejo de Gobierno Foral, constituye el órgano superior del Departamento.

Departamentuari esleitutako funtzioak betetzeko 5 zuzendaritza nagusi, 2 foru organismo autonomo (Uliazpi Fundazioa eta Kabia) eta 6 zerbitzu sortu dira. **296** pertsonak lan egiten dute Departamentuan, eta horietatik % 82 emakumeak dira.

Para el cumplimiento de las funciones atribuidas se crean 5 direcciones generales, 2 organismos autónomos (Fundación Uliazpi y Kabia) y 6 servicios en los que trabajan **296** personas, de las cuales el 82% son mujeres.




Organigrama

2023ko Memoria

1.3.- Organigrama

1.3.- Organigrama




1.4.- Aurrekontua

1.4.- Presupuesto

T. 1.- Aurrekontua / Presupuesto

2023ko Aurrekontua/Presupuesto 2023			
Programa		Exekuzioa/ Ejecución	%
10	Zerbitzu orokorrak / Servicios Generales	4.221.142	0,8%
100	Desgaituentzako arreta / Atención a personas con discapacidad	69.454.900	14,0%
110	Adineko pertsonentzako arreta / Atención a personas mayores	113.408.330	22,8%
200	Plangintza eta informazio sistemak / Planificación y sistemas de información	7.253.345	1,5%
210	Inbertsio plana / Plan de Inversiones	23.925.829	4,8%
220	Aldizkako prestazio ekonomikoak / Prestaciones económicas periódicas	95.289.702	19,2%
300	Gizarteratzea eta indarkeria matxistaren emakume biktimen arreta / Inserc. Social y At. a Mujeres Víctimas de Viol. Machista	41.166.558	8,3%
310	Haurren eta nerabeen babesa / Protección a la Infancia y a la Adolescencia	60.906.782	12,2%
400	Foru Erakunde publikoen kudeaketa / Gestión de Organismos públicos forales	81.816.977	16,4%
Guztira /Total		497.443.566	100,0%

G. 1.- Likidatutako aurrekontua / Presupuesto liquidado



2.- ERABILTZAILEEI ARRETA

2.- ATENCIÓN A PERSONAS USUARIAS


2.1. Arretari buruzko datu globalak

2.1 Datos de atención globales

Ondoko grafikoan zentroetan zein zerbitzuen bidez arreta jaso duten pertsona kopurua agertzen da, baita prestazio ekonomikoen hartzaile kopurua ere.

El siguiente gráfico muestra el número de personas atendidas, tanto en centros como mediante servicios, así como el número de personas beneficiarias de prestaciones económicas.

G. 2.-Arretari buruzko datu globalak. Urtean artatutako pertsonak / Datos globales de atención. Personas atendidas en el año




Guztira **36.672** pertsonari eman zaie arreta. 2023ko abenduan **30.356** pertsona artatu ziren eta horietatik **%61** emakumeak dira.

El total de personas diferentes atendidas en el año es de **36.672**. En diciembre de 2023 se atendía a **30.356** personas, de las cuales el **61%** son mujeres.

2012-2023 epean zehar arreta emandako pertsona kopuruaren bilakaera hurrengo grafikoan ageri da:

En el siguiente gráfico se muestra la evolución del número de personas atendidas en el período 2012-2023:


G. 3.- Arretari buruzko datu globalak. Urteko bilakaera / Datos globales de atención. Evolución anual




Zentro mota ezberdinetan artatutako pertsonak aztertzeko, baliabideetako arretan egon den bilakaera ikus daiteke ondoko grafikoetan.

Analizando las personas atendidas en los distintos tipos de centros, podemos observar la evolución de la atención de los recursos en los siguientes gráficos.


G. 4.-Adinekoen baliabideetan artatutako pertsona kopuruaren bilakaera / Evolución del número de personas atendidas en recursos para personas mayores (12-31)




G. 5.- Baliabide soziosanitarioetan artatutako pertsona kopuruaren bilakaera / Evolución del número de personas atendidas en centros residenciales sociosanitarios (12-31)




G. 6.- Desgaitasuneko baliabideetan artatutako pertsona kopuruaren bilakaera/Evolución del número de personas atendidas en recursos para personas con discapacidad (12-31)




G. 7.- Gaixotasun mentaleko baliabideetan artatutako pertsona kopuruaren bilakaera/Evolución del número de personas atendidas en recursos para personas con trastorno mental (12-31)



G. 8.- Adingabeen baliabideetan artatutako pertsona kopuruaren bilakaera/Evolución del número de personas menores atendidas (12-31)



G. 9.- Gizarteratzeko baliabideetan artatutako pertsona kopuruaren bilakaera/Evolución del número de personas atendidas en recursos de inclusión (12-31)



2023 urtean zehar, guztira **26.313** pertsona mendekotasun, desgaitasun eta RAI balioespen egin ziren, 2022an baino %10 gehiago.

Asimismo, durante el año 2023 fueron valoradas de dependencia, discapacidad y RAI un total de **26.313** personas, un 10% más que en 2022.

Plaza berrien sorreraren inguruan:

En cuanto a la creación nuevas de plazas:

2023 urtean zehar, egiturazko **314** plaza berri hitzartu dira. Zehazki, plaza horiek honela banatu dira (plaza berriak):

A lo largo del 2023 se han concertado **314** plazas estructurales de acuerdo a la siguiente distribución (plazas nuevas):

G. 10.- Baliabide ezberdinetako plaza berriak / Nuevas plazas en distintos recursos



Adinekoentzako egoitzetan 115 plaza berri hitzartu dira: Usurbilgo Egurtzegi (108), Alai Etxe (2) eta Lamorous (5), Donostian.

En las **residencias para personas mayores**, se han concertado **115** nuevas plazas: Egurtzegi en Usurbil (108), Alai Etxe (2) y Lamorous (5) en Donostia.

131 plaza kendu dira: 85 Zizurkilgo Fraisoron; 27 Arrasateko Iturbiden; 9 Tolosako Yurreamendi egoitzan; 6 Donostiako Txara Ieko UCAn eta 4 Eibarko San Andres egoitzan.

Se han suprimido **131** plazas: 85 en Fraisoro, Zizurkil; 27 en Iturbide, Arrasate; 9 en Yurreamendi, Tolosa; 6 en la UCA de Txara I, Donostia y 4 en la residencia San Andres de Eibar.

Eguneko zentroetan 84 plaza itundu dira guztira, eta 47 kendu dira.

En los centros de día se han concertado en total 84 plazas y se han suprimido 47.

Desgaitasuna duten pertsonentzako baliabideetan 59 plaza berri itundu dira egoitzetan: 21 Irungo Egiluze egoitzan; 19 Usurbilgo Egurtzegin; 7 Zarauzko Atzegiko Aldapeta zentroan; 6 Donostiako Elizaranen eta beste 6 Txara Ieko UCAn. 5 plaza kendu dira: Atzegiko 4 plaza Donostian eta Uliazpiko 1, Donostian ere.

En los **recursos para personas con discapacidad** se han concertado **59** nuevas plazas en residencias: 21 en la residencia Egiluze de Irún; 19 en Egurtzegi, Usurbil; 7 en Aldapeta, Zarautz, con Atzegi, 6 en Donostia, Elizaran y otras 6 en las UCAs de Txara I. Se ha suprimido 5 plazas: 4 con Atzegi en Donostia y 1 en Uliazpi también en Donostia.

Eguneko zentroetan 75 plaza itundu dira guztira, eta 19 kendu dira.

En los centros de día se han concertado en total 75 plazas y se han suprimido 19.

Osasun mentaleko egoitzetan 57 plaza berri

En las residencias de **salud mental**, se han

hitzartu dira, Arrasateko San Juan de Dios egoitzan Plazaola URTMSa 32 plaza dituen eta Irunen Egiluzeko egoitzan 25 plaza.

concertado **57** nuevas plazas, la URTMS Plazaola en la residencia San Juan de Dios de Arrasate con 32 plazas y la URTMS Egiluze en Irun con 25 plazas.

Gizarteratzeko bizitokietan, 58 plaza itundu dira, eta 11 kendu.

En los **alojamientos de inserción**, se han concertado **58** plazas y se han suprimido 11.

Gizarteratzeko eguneko zentroetan, bi baliabide berri ireki dira, bat Azpeitian, **11** plazarekin eta beste bat Zarautzen, **10** plazarekin.

En los **centros de día de inserción**, se han abierto dos nuevos recursos, uno en Azpeitia, con **11** plazas y otro en Zarautz con **10** plazas.

Behagi-Gizarte Zerbitzuen Behatokiari dagokionez, **3.161** pertsonak bisitatu dute bere webgunea.

En lo que respecta al **Observatorio de Servicios Sociales-Behagi**, **3.161** personas han visitado su página web.

Gizarte ekimenerako laguntzen bidez, irabazte asmorik gabeko erakundeei diru-laguntzak eman zaizkie, guztira **338** programa egiteko, zehazki, esparru hauetan: esku-hartze soziala, prebentzio eta sentsibilizazio programak, ikerketa eta berrikuntza proiektuak.

A través de las **ayudas a la iniciativa social** se han concedido subvenciones a entidades guipuzcoanas sin ánimo de lucro para la realización de **338** programas de intervención social, prevención y sensibilización, y proyectos de investigación e innovación.

2.2 Esparruaren araberako azterketa

2.2 Análisis por ámbito de actuación

2.2.1.- MENDEKOTASUNA

2.2.1.- DEPENDENCIA

2.2.1.A.-Adinekoentzako egoitza zentroak

2.2.1.A.- Centros residenciales para personas mayores

Adinekoentzako egoitza zentroak, ohiko etxebizitza edo behin betiko etxebizitza gisa erabiltzen diren zentroak dira; dena dela, batzuetan behin-behineko zentro gisa ere erabiltzen dira, hain zuzen ere, 2 eta 3. graduko mendekotasuna duten adineko pertsonentzat (eta salbuespen gisa 1. gradukoentzat). Egoera horretan dauden pertsonak ezin dituzte beren ohiko ingurunean edo bestelako egoitza-aukera arinagoetan beren premiak behar bezala bete, laguntza maila handiagoa behar baitute, eta horrelako zentroetan arreta osoa eta etengabekoa ematen zaie.

Los centros residenciales para personas mayores son centros destinados a servir de vivienda habitual o permanente, y, en su caso, temporal, a personas mayores en situación de dependencia en grados 2 y 3 (y excepcionalmente en grado 1), que no pueden satisfacer adecuadamente sus necesidades en su entorno habitual, o en alternativas de alojamiento de carácter más ligero, por requerir apoyos de mayor intensidad, ofreciéndose en estos centros una atención integral y continua.

5.251 plaza eskaintzen dira guztira, eta horietatik **4.614**, foru finantzaketa dute. Zenbaketa horretan ez dira sartu aldi baterako plazak, ezta alor soziosanitariokoak ere.

El total de plazas ofertadas es de **5.251**, de las cuales **4.614** son de financiación foral. No se incluyen en ese cómputo las plazas temporales ni las de perfil sociosanitario.

Nabarmentzekoa da Usurbilen Egurtzegi zentroa ireki dela, arreta-eredu berriaren arabera. Eredu horrek profil orokorreko 78 plaza ditu, 4 bizikidetza-unitatetan banatuta, eta profil psikogeriatrikoko 30 plaza, 2 bizikidetza-unitatetan banatuta.

Cabe destacar la apertura del centro Egurtzegi en Usurbil, conforme al nuevo modelo de atención estructurado en unidades convivenciales con 78 plazas de perfil general distribuidas en 4 unidades convivenciales y 30 plazas de perfil psicogeriatrico distribuidas en 2 unidades convivenciales.

Abenduaren 31n **853** pertsona zeuden adinekoentzako egoitzan sartzeko itxaron zerrendan, 2022ko data berean baino %41 gehiago.

A 31-12 había **853** personas en lista de espera para acceder a centros residenciales para personas mayores, un 41% más que a la misma fecha de 2022.

Ondoren, mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonen egoitza zentroei buruzko datu orokorrak datoz.

A continuación se muestran los datos generales de atención en centros residenciales para personas mayores en situación de dependencia.

Urtean zehar, **5.768** pertsonari eman zaie arreta.

A lo largo del año se ha atendido a **5.768** personas.

Abenduaren 31n, **4.384** pertsonari ematen zitzairen arreta, horietatik **%71** emakumeak.

A 31-12 se prestaba atención a **4.384** personas, un **71%** mujeres.

Alta izan diren 1.637 pertsonen batz-besteko adina **85,16** urtekoa izan da.

La edad media de las 1.637 personas que han causado alta se ha situado en **85,16** años.

Baja izan diren 1.576 pertsonen batz-besteko adina **87,93** urtekoa izan da.

La edad media de las 1.576 personas que han causado baja se ha situado en **87,93** años.

Heriotzagatik baja eragin duten egonaldien **batez-besteko** iraupena **3,02** urtekoa da.

La **duración media** de las estancias de las personas que han causado baja por fallecimiento es de **3,02** años.

Profil orokorreko plazen eta unitate psikogeriatrikoetako plazen okupazioa **% 97** izan da.

La ocupación ha sido del **97%** tanto en las plazas de perfil general como en las plazas de unidades psicogerítricas.

Profilen araberako errotazioa aztertuz gero, ikusten da plaza orokorretan psikogeriatrikoetan baino errotazio (urtean artatutako pertsonak / plazen kop.) txikiagoa dagoela (orokorretan **%1,28**koa, eta psikogeriatrikoetan **%1,43**koa).

Si analizamos la rotación por perfiles, las plazas de perfil general presentan una menor rotación (personas atendidas año/núm. plazas) (**1,28%**) que las de unidades psicogerítricas (**1,43%**).

2.2.1.B.- Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroak

Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroak, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko muga fisiko eta / edo psikiko garrantzitsuak dituztelako, ohiko ingurunean bere premiak behar bezala betetzeko zailtasunak dituzten pertsonen bideratuta daude.

Nabarmenezkoa da eguneko zentro berri bat ireki dela Donostiako Arrasate kalean, eta bertan 18 plaza itundu ditugula. Zentro hori Zorroaga Fundazioak kudeatzen du.

Era berean, 15 plaza itundu ditugu Arrasateko Musakola zentroan, 4 Urretxun, 3 Erreterian, 3 Zegaman eta 1 Donostian.

Tolosako Ama Maria Josefa eguneko zentroan 12 plaza itundu ditugu asteburuetarako.

Guztira, **1.893** plaza daude eta horietatik **1.597k** foru finantzaketa dute.

Abenduaren 31n **369** pertsona zeuden itxaron-zerrendan, aurreko urtean baino bi aldiz baino gehiago.

Urtean zehar **2.171** pertsona artatu dira.

Abenduaren 31n, **1.469** pertsonari ematen zitzaien arreta, horietatik **%73** emakumeak.

Abenduaren 31n, okupazioa **%92**koa zen eta rotazioa (urtean artatutako pertsonak / plazen kop.) **1,36**koa.

2.2.1.B.- Centros de día para personas mayores en situación de dependencia

Los centros de día para personas mayores en situación de dependencia están dirigidos a personas que no pueden satisfacer adecuadamente sus necesidades en su entorno habitual por presentar importantes limitaciones físicas y/o psíquicas para realizar actividades de la vida diaria.

Cabe destacar la apertura de un nuevo centro de día en la calle Arrasate de Donostia en el que hemos concertado 18 plazas. Este centro lo gestiona la Fundación Zorroaga.

Hemos concertado asimismo 15 plazas en el centro Musakola de Arrasate, 4 en Urretxu, 3 en Erretería, 3 en Zegama y 1 en Donostia.

En el centro de día Madre Maria Josefa de Tolosa hemos concertado 12 plazas para fines de semana.

Hay un total de **1.893** plazas, de las cuales **1.597** son de financiación foral.

A 31-12 había **369** personas en lista de espera, más que el doble que el año anterior.

A lo largo del año se ha atendido a **2.171** personas.

A 31-12 se prestaba atención a **1.469** personas, un **73%** de mujeres.

La ocupación a 31-12 ha sido del **92%** y la rotación (personas atendidas año/núm. plazas) de **1,36**.

2.2.2.- ARRETA SOZIOSANITARIOA

Osasun-arazo larriengatik edo muga funtzionalengatik eta/edo gizarte-bazterkeriako arriskuagatik aldi berean osasun-eta gizarte-arreta, koordinatua eta egonkorra, arretaren jarraitutasun-printzipioari egokitua, behar duten pertsonentzako zainketa-multzoa hartzen du arreta soziosanitarioak.

Arlo soziosanitariotik bi esku-hartze ildotan arreta soziosanitario egokia antolatu ahal izateko lan egiten da. Alde batetik, eremu soziosanitarioaren garapenean, koordinaziorako eta baterako lanerako eremu gisa, bai lurralde mailan, bai autonomia mailan, eta, bestetik, baliabide soziosanitarioen kudeaketan, bai artatutako biztanleek, bai haietarako irisgarritasunak eraginda.

2.2.2.A.- Koordinazio soziosanitarioaren garapena

Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin koordinazio soziosanitarioa garatzen ari gara, bai lurralde mailan, bai autonomia mailan.

2.2.2.A.1.- Koordinazio autonomikoa

Autonomia-erkidegoan, Osasun Sailarekin eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuarekin elkarlanean aritu gara, eta haiekin batera parte hartu dugu, bai eta Bizkaiko eta Arabako lurralde historikoekin ere, Euskadiko Gobernantza Soziosanitarioari buruzko abenduaren 7ko 150/2022 Dekretuaren garapenean.

2.2.2.- ATENCIÓN SOCIOSANITARIA

La atención Sociosanitaria comprende el conjunto de cuidados destinados a las personas que, por causa de graves problemas de salud o limitaciones funcionales y/o de riesgo de exclusión social, necesitan una atención sanitaria y social simultánea, coordinada y estable, ajustada al principio de continuidad de la atención.

Desde el área Sociosanitaria se trabaja para poder articular una atención sociosanitaria adecuada en dos líneas de intervención. Por un lado, en el desarrollo del espacio sociosanitario, como espacio de coordinación y trabajo conjunto tanto a nivel territorial como Autonómico y por otro en la gestión de recursos de carácter sociosanitario tanto por la población atendida como por el acceso a los mismos.

2.2.2.A.-Desarrollo de la coordinación sociosanitaria

Trabajamos en el desarrollo de la coordinación Sociosanitaria con el departamento de Salud y con Osakidetza tanto a nivel Territorial como a nivel Autonómico.

2.2.2.A.1.-Coordinación Autonómica

A nivel Autonómico hemos colaborado y participado con el Departamento de Salud, el Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, así como las Diputaciones Forales de Bizkaia y Araba en el desarrollo del Decreto 150/2022, de 7 de diciembre, de la gobernanza sociosanitaria de Euskadi.

Autonomia erkidegoko "Batzorde Tekniko Iraunkorrea" parte hartu dugu, bai eta "2021-2024 aldirako Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategiaren" garapenean ere, zenbait jardun-arlotan lankidetzan:

- Gobernantza soziosanitaria
- Gobernantzako dekretua
- Finantzaketa-esparrua
- Elkarreragingarritasun soziosanitarioa
- Osabide egoitzetan
- Prebentzio soziosanitarioa
- Arreta soziosanitarioa
- Xede-kolektiboak
- Arreta goiztiarra

Proiektu horietako batzuek, 2023an izan duten garapena dela eta, aipamen berezia behar dute:

- "Gipuzkoako Foru Aldundiarekin arreta soziosanitariorako finantza-lankidetzarako hitzarmena" Gobernantza Publiko eta Autogobernu Departamentuak sinatu eta argitaratu du 2023ko martxoaren 6ko EHAaren otsailaren 27ko 34/2023 Ebazpenean.
- Egoitzetatik Osabideko sarbidea: hirugarren adinekoei arreta ematen dieten egoitza-zentro guztietara zabaldu da, baita osasun-arretako taldeak dituzten desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten pertsonentzako zentroetara ere.

Hemos participado en la "Comisión Técnica Permanente" de carácter autonómico, así como en el desarrollo de la "Estrategia de atención Sociosanitaria de Euskadi 2021-2024" colaborando en diversas áreas de actuación:

- Gobernanza sociosanitaria
- Decreto de Gobernanza
- Marco de financiación
- Interoperabilidad Sociosanitaria
- Osabide en residencias
- Prevención Sociosanitaria
- Atención Sociosanitaria
- Colectivos Diana
- Atención Temprana

Algunos de estos proyectos, dado el desarrollo que han tenido durante el año 2023, requieren especial mención:

- El "Convenio de colaboración financiera con la Diputación Foral de Gipuzkoa, para la atención sociosanitaria" se ha firmado y se ha publicado por el Departamento de Gobernanza pública y Autogobierno en la Resolución 34/2023, de 27 de febrero del BOPV de 6 de marzo de 2023.
- Acceso a Osabide desde las Residencias: se ha extendido a todos los centros residenciales que atienden a personas de tercera edad e incluso a centros para personas con discapacidad o enfermedad mental que presentan equipos de atención sanitaria.

2.2.2.A.2.- Lurralde Koordinazioa

2022an Gobernantzari buruzko Dekretu berria onartu ondoren, 2023an ahalegin bat egin da hitzarmen horretan jasotako koordinazio-egiturak aktibatzeke, aurretik zeuden egiturekin jarraitasunez.

Lurralde Kontseilu Soziosanitarioa eguneratuta, Gobernantzari buruzko Dekretu berriaren arabera.

Erakunde Sanitario Integratuen mailan, "Eskualdeko Kontseilu Soziosanitarioak" jarri dira abian, sei Lurralde osoan, bat Erakunde Sanitario Integratu (ESI) bakoitzeko eta hura osatzen duten udalerrietako, eta gutxienez bi bilera egin dira eskualde bakoitzeko.

Kasuak kudeatzeko Balorazio eta Orientazio Soziosanitarioko Batzordean, aztertutako kasuen bolumena eta konplexutasuna kontuan hartuta, bi batzorde bereizi izan dira 2023an:

1.- Balorazio eta Orientazio Soziosanitarioko Batzordea, astean behin egoitza-unitate soziosanitarioak plazak eskuratzeko.

2.- Balorazio eta orientazio soziosanitarioko batzordea, hamabostean behin nahasmendu mental larria duten pertsonentzako plazak eskuratzeko.

2.2.2.A.2.- Coordinación Territorial

Tras la aprobación del Nuevo Decreto de Gobernanza el año 2022, durante el año 2023 se ha realizado un esfuerzo para activar las estructuras de coordinación recogidas en dicho convenio, con un carácter de continuidad respecto a las estructuras previamente existentes.

Se ha actualizado el Consejo Territorial Sociosanitario de acuerdo al nuevo Decreto de Gobernanza.

A nivel de Organizaciones sanitarias Integradas se han puesto en marcha los "Consejos Sociosanitarios Comarcales", seis en todo el Territorio, uno por cada Organización Sanitaria integrada (OSI) y los municipios que la componen, y se han realizado un mínimo de dos reuniones por comarca.

En la Comisión de Valoración y Orientación Sociosanitaria de gestión de casos, dado el volumen y la complejidad de los casos analizados, durante el año 2023 se han mantenido dos comisiones diferenciadas:

1.- La Comisión de valoración y orientación sociosanitaria para acceso a plazas de las unidades residenciales sociosanitarias con periodicidad semanal.

2.- La Comisión de valoración y orientación sociosanitaria para acceder a plazas para personas con trastorno mental severo con periodicidad quincenal.

2.2.2.B.1.- Egoitza-zentro soziosanitarioak, EUS.

Egoitza soziosanitarioetan osasun eta gizarte arloko arreta handia eskaintzen zaie pertsonari, aldi berekoa, koordinatua eta egonkorra.

148 plaza dira guztira eta guztiek finantzaketa publikoa dute. Hiru zentrotan banatuta daude: Gurutz Gorria (Donostia), Argixao (Zumarraga) eta Eibar -Torrekua.

SESBeko egoitza-unitate soziosanitarioko plazen kudeaketari dagokionez, 2023an **413** kasu soziosanitario landu dira atal soziosanitariotik. 298 eskaera iritsi dira Balorazio eta Orientazio Soziosanitarioko Batzordera, eta horrek 275 sarrera eragin ditu.

Abenduaren 31n, **14** pertsona zeuden egoiza hauetarako itxaron zerrendan.

Urtean zehar **407** pertsona artatu ziren.

Abenduaren 31n **140** pertsonari ematen zitzairen arreta, horietatik **%49** emakumeak.

Abenduaren 31n okupazioa **%95**koa zen, eta errotazioa (urtean artatutako pertsonak / plazen kop.) **2,75**koa izan da. Plaza horiek profil iraunkorreko eta psikogeriatrikoko plazek baino errotazio handiagoa dute, beren ezaugarriak direla eta (iraunkorrekoek, 1,18; eta psikogeriatrikokoek, 1,33).

2.2.2.B.1.- Centros residenciales socio sanitarios, URSS.

Los centros residenciales socio sanitarios son centros destinados a personas que precisan una atención sanitaria y social intensa, simultánea, coordinada y estable.

El total de plazas es de **148**, todas ellas de financiación pública, repartidas en tres centros: Cruz Roja (Donostia), Argixao (Zumarraga) y Eibar -Torrekua.

En lo referente a gestión de plazas de unidad residencial Socio sanitaria URSS, Desde la sección Socio sanitaria durante el año 2023 se han trabajado **413** casos socio sanitarios. Han llegado a Comisión de Valoración y Orientación Socio sanitaria 298 solicitudes y esto ha generado 275 ingresos.

A 31-12 había una lista de espera de **14** personas para acceder a residencias socio sanitarias.

A lo largo del año se ha atendido a **407** personas.

A 31-12 se prestaba atención a **140** personas, un **49%** mujeres.

La ocupación a 31-12 ha sido del **95%** y la rotación (personas atendidas año/núm. plazas) **2,75**. Este tipo de plazas, por sus características, presentan una rotación muy superior a las plazas de perfil permanente (1,18) o de unidades psicogeriatricas (1,33).

2.2.3.- DESGAITASUNA

2.2.3.A.- Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak

Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroak, eguneroko beharrian beren ohiko ingurunean bete ezin dituzten eta, hortaz, mendekotasun egoeran dauden pertsona desgaituei ohiko etxebizitza iraunkorra, edo aldi baterako bizilekua, ematera bideratutako bizikidetzak zerbitzuak dira.

2023an, Irungo Egiluze zentroan desgaitasuna duten pertsonentzako 4 unitate ireki dira, guztira 21 plazarekin.

Usurbilgo Egurtzegi zentroan 19 plaza hitzartu ditugu dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako bizikidetzak-unitate batean.

Zarauzko garagune berrian 7 plaza hitzartu ditugu Atzegirekin, profil desberdineko pertsonentzako laguntza duen etxebizitza batean.

Gainera, Donostiako Txara I zentroan 6 plazako bizikidetzak-unitate bat ireki dugu.

2023an eskaintza **54** plazatan igo da. **992** plaza daude foru finantzaketa dutenak.

Abenduaren 31n, **109** pertsona zeuden zentro hauetarako itxaron zerrendan.

Urtean zehar **1.000** pertsona artatu ziren.

Abenduaren 31n, **953** pertsonari ematen zitzaaien arreta, horietatik %40 emakumeak.

2.2.3.- DISCAPACIDAD

2.2.3.A.- Centros residenciales para personas con discapacidad

Los centros residenciales para personas con discapacidad son servicios de convivencia destinados a servir de vivienda habitual o permanente y en su caso, temporal, a personas con discapacidad y en situación de dependencia, que no pueden satisfacer adecuadamente sus necesidades en su domicilio personal o familiar.

En 2023 en el centro Egiluze de Irun se han abierto 4 unidades para personas con discapacidad con 21 plazas en total.

En el centro Egurtzegi de Usurbil hemos concertado 19 plazas en una unidad de convivencia para personas con diversidad funcional.

En el nuevo garagune de Zarautz hemos concertado 7 plazas con Atzegi en una vivienda con apoyos para personas con diferentes perfiles.

Además, en el centro Txara I de Donostia hemos abierto una unidad de convivencia con 6 plazas.

En el año 2023 la oferta ha aumentado en **54** plazas. Hay un total de **992** plazas de financiación foral.

A 31-12 había **109** personas en lista de espera para acceder a estos centros.

A lo largo del año se ha atendido a **1.000** personas.

A 31-12 se prestaba atención a **953** personas, un 40% mujeres

Abenduaren 31n okupazioa **%96 koa** zen, eta Gipuzkoako batez besteko errotazioa (urtean artatutako perts./ plazen kop.) **1,01koa** izan da.

La ocupación a 31-12 ha sido del **96%** y la rotación (personas atendidas año/núm. plazas) media de Gipuzkoa de **1,01**.

2.2.3.B.- Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroa

2.2.3.B.- Centros de día para personas con discapacidad

Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak diziplina anitzeko talde profesional batek gauzatutako jardun sorta antolatu eta koordinatu baten bitartez, hartzaileen garapen personal eta soziala, autonomia eta gizarteratzea xede dituen arreta gaitzaile integrala eskaintzen dute.

Los centros de día para personas con discapacidad son centros que proporcionan una atención habilitadora integral orientada a facilitar el desarrollo personal y social, la autonomía y la integración social de personas con discapacidad. Esta atención es prestada por un equipo profesional multidisciplinar.

Eguneko zentro berri bat ireki da Zarautzen, 25 plazarekin, Goyeneche Fundazioak kudeatua eta dibertsitate funtzional desberdina duten pertsonentzat.

Se ha abierto un nuevo centro de día en Zarauz con 25 plazas, gestionado por Fundación Goyeneche y dirigido a personas con diferente diversidad funcional.

Irungo Egiluze egoitzan 15 plaza dituen eguneko zentro bat ireki dugu kalte zerebrala duten pertsonentzat.

En la residencia Egiluze de Irún hemos abierto un centro de día con 15 plazas para personas con daño cerebral.

2023an eskaintza **56** plazatan igo da. **833** plaza daude foru finantzaketa dutenak.

En el año 2023 la oferta se ha incrementado en **56** plazas. Hay un total de **833** plazas de financiación foral.

Abenduaren 31n, **38** pertsona zeuden zentro horietarako itxaron zerrendan, aurreko urtean baino % 3 gutxiago.

A 31-12 había **38** personas en lista de espera para acceder a estos centros, un 3% menos que el año anterior.

2023 urtean zehar **839** pertsona artatu ziren.

En 2023 se ha atendido a **839** personas.

Abenduaren 31n, **788** pertsonari ematen zitzaaien arreta, horietatik **%43** emakumeak.

A 31-12 se prestaba atención a **788** personas, un **43%** mujeres.

Abenduaren 31n okupazio maila **%94,6**koa zen, eta errotazioa (urtean artatutako pertsonak / plazen kop.), **1,01**koa izan zen.

La ocupación a 31-12 ha sido del **94,6%** y la rotación (personas atendidas año/núm. plazas) de **1,01**.

2.2.4.- GAIXOTASUN MENTALA

2.2.4.A.- Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza zentroak

Buru-nahaste larria duten pertsonentzako komunitate-ostatu baliabideak arreta ematen dieten zentro eta zerbitzu soziosanitarioak dira, beren gaitasun eta trebetasun pertsonalak eta harremanetarako hobetzeko prestazioen bidez, pertsona horien garapen pertsonala, gizarteratzea eta ingurune partaidetza sustatzeko eta oro har, beren bizi kalitatea hobetzeko.

2023an, bi egoitza-unitate ireki dira nahasmendu mental larria duten pertsonentzat (NMLEU):

- **NMLEU Plazaola**, Arrasaten. San Juan de Dios ospitaleko ordenak kudeatzen du. Guztira **32 plaza** ditu, 12 plazako bi modulu, eta 1, 3 eta 4 plazako hiru apartamentu.
- **NMLEU Egiluze**, Irunen. GSRk kudeatzen du, eta guztira **25 plaza** ditu, 12 plazako bi modulutan eta 13 plazako beste zentro balioaniztun batean. Zentro horrek desgaitasuna duten pertsonen arreta ematen die 23 plazako unitate batean (bi modulutan banatuta) eta desgaitasuna edo garuneko kaltea duten pertsonentzako eguneko zentro batean.

Arlo soziosanitarioan, 2023an, ostatu emateko **219** kasu soziosanitario landu dira. **78** eskaera iritsi dira Balorazio eta Orientazio Soziosanitarioko Batzordera. Aurten, bi egoitza-unitate ireki direnez, 21 lekualdatze-eskaera eta zerbitzuen berrantolaketa egin dira.

2.2.4.- ENFERMEDAD MENTAL

2.2.4.A.- Centros residenciales para personas con enfermedad mental

Los recursos de alojamiento comunitario para personas con trastorno Mental Severo son centros o servicios de carácter sociosanitario que atienden a personas con enfermedad mental crónica mediante prestaciones orientadas a mejorar sus capacidades y habilidades, personales y relacionales, con el fin de favorecer su desarrollo personal, su integración y participación en el entorno, y, en general, mejorar su calidad de vida.

En 2023 se han abierto dos Unidades residenciales para personas con Trastorno Mental Severo (URTMS):

- **URTMS Plazaola** en Arrasate, gestionada por la Orden Hospitalaria de San Juan de Dios, con un total de **32 plazas**, dos módulos de 12 plazas cada uno y tres apartamentos de 1, 3 y 4 plazas.
- **URTMS Egiluze**, en Irún, gestionado por GSR con un total de **25 plazas** en dos módulos de 12 y 13 plazas integrado en un centro polivalente que atiende a su vez a personas con discapacidad en una unidad de 23 plazas (distribuida a su vez en dos módulos) y un centro de día para personas con discapacidad y/o daño cerebral.

Desde la sección Sociosanitaria durante el año 2023 se han trabajado **219** casos sociosanitarios para alojamiento. Han llegado a la Comisión de Valoración y Orientación Sociosanitaria **78** solicitudes. Este año la apertura de dos unidades residenciales ha supuesto que se hayan generado 21



	solicitudes de traslado y la reorganización de servicios.
352 plaza daude guztira eta 343 plaza daude foru finantzaketa dutenak.	Hay un total de 352 plazas de las cuales 343 son de financiación foral.
Abenduaren 31n, 52 pertsona zeuden itxaron zerrendan.	A 31-12 había 52 personas en lista de espera.
Urtean zehar 334 pertsona artatu ziren.	A lo largo del año se ha atendido a 334 personas.
Abenduaren 31n, 313 pertsonari ematen zitzaaien arreta, horietatik %31 emakumeak.	A 31-12 se prestaba atención a 313 personas, un 31% mujeres.
Abenduaren 31n, okupazioa %91,3 koa zen, eta errotazioa (urtean artatutako pertsonak / plazen kop.) %0,97 koa izan zen.	A 31-12 la ocupación ha sido del 91,3% y la rotación (personas atendidas año/núm. plazas) de 0,97% .

2.2.4.B.- Buru-nahaste larria duten errehabilitazio psikosozialeko zentroak

Buru-nahaste larria duten pertsonentzako errehabilitazio psikosozialeko zentroetan diziplina anitzeko talde batek garatutako jarduketak antolatu eta koordinatuen bidez, arreta integrala ematen da ahal den neurrian, garapen pertsonal eta soziala, autonomia eta gizarteratzea lortzera bideratua.

250 plaza daude guztira eta **239** plaza daude foru finantzaketa dutenak.

Abenduaren 31n, **7** pertsona zeuden gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako eguneko zentroetarako itxaron zerrendan.

Atal soziosanitarioak **102** eguneko jarduera-kasu landu ditu. Balorazio eta Orientazio Soziosanitarioko Batzordera errehabilitazio psikosozialeko eguneko jardueraren **42** eskaera iritsi dira.

Urtean zehar **268** pertsona artatu ziren.

Abenduaren 31n, **224** pertsonari ematen zitzaaien arreta, horietatik %32 emakumeak.

Abenduaren 31n, okupazioa **%91**koa zen, eta errotazioa (urtean artatutako pertsonak / plazen kop.) **%1,23**koa izan zen.

2.2.4.B.- Centros de rehabilitación psicosocial para personas con Trastorno Mental Severo

En los centros de rehabilitación psicosocial para personas con TMS se proporciona, mediante un conjunto organizado y coordinado de actuaciones desarrolladas desde un equipo profesional multidisciplinar, una atención habilitadora integral orientada, en todo lo posible, a facilitar el desarrollo personal y social, la autonomía y la integración social.

Hay un total de **250** plazas de las cuales **239** son de financiación foral.

A 31-12 había **7** personas en lista de espera para acceder a centros de día para personas con enfermedad mental.

Desde la sección Sociosanitaria se han trabajado **102** casos de actividad diurna. Han llegado a Comisión de valoración y orientación Sociosanitaria **42** solicitudes de actividad diurna de rehabilitación psicosocial.

A lo largo del año se ha atendido a **268** personas.

A 31-12 se prestaba atención a **224** personas, un 32% mujeres.

A 31-12, la ocupación ha sido del **91%** y la rotación (personas atendidas año/núm. plazas) de **1,23%**.

2.2.4.C.- Laguntza psikosozial komunitarioko programa

Laguntza psikosozial komunitarioko programa gaixotasun mental larria duten pertsonen etxean laguntza ematen dien zerbitzua da. Pertsonak errehabilitatzea du helburu, beren ingurunean eskaintzen zaizkien laguntzen bidez, erkidegoan bizitza autonomoa izan dezaten.

Horretarako, erabiltzaileek hezitzaile baten laguntza dute astero (normalean bi saio), eta psikologo profesional baten hileko ikuskapena (saio bat).

Saio horiek foru finantzaketa dituzte; Gipuzkoako Foru Aldundiak Agifeseekin (Buru Osasun Arazoa duten Pertsonen eta Senideen Gipuzkoako Elkarte) eta Aita Menni ospitale-ahizpak erakundearekin dituen hitzarmenen barruan dago programa.

2023an **159 kasu** artatu dira guztira: 96 Agifek, eta 63 Aita Menni. Era berean, urtean zehar, hainbat erabiltzaile erreserba-egoeran egon dira ospitaleratuta egoteagatik edo egonaldi ertainean ingresatuta egoteagatik, eta erabiltzaile berriei arreta ematea edo alta ematea ahalbidetu dute.

Lehen aipatutako eskuhartzeak suposatu dute, 6.383 saio egin dituztela Agifeseok eta 3.031 saio Aita Menniok; guztira, **9.414 saio**.

2023/12/31n 126 pertsona artatzen ari ziren, 64 gizon (% 50,8) eta 62 emakume (% 49,2), batez beste 47 urte eta 2 hilabeterekin (gutxienez 19, gehienez 73); eta programan 3 urte eta hilabeteko batez besteko antzintasuna zuten, % 37,3k 4 urte baino gehiagoko antzintasuna

2.2.4.C.- Programa de apoyo psicosocial comunitario

El programa de apoyo psicosocial comunitario es un servicio que presta apoyo en el domicilio a personas con trastorno mental grave. Tiene como finalidad la rehabilitación de las personas mediante apoyos que se le ofrecen en su entorno, para conseguir una vida autónoma en comunidad.

Para ello, las personas usuarias cuentan con el apoyo de una persona educadora semanalmente (normalmente dos sesiones) y con la supervisión mensual (una sesión) de la figura de un profesional psicólogo.

Dichas sesiones cuentan con una financiación foral dado que el programa está incluido en los convenios que la Diputación foral de Guipúzcoa tiene con Agifes, Asociación Guipuzcoana de familiares y enfermos psíquicos, y la entidad Hermanas hospitalarias Aita Menni.

En el año 2023 se han llegado a atender un total de **159 casos**: 96 por parte de Agifes, y 63 a través de Aita Menni. Asimismo, a lo largo del año ha habido varias personas usuarias que debido a encontrarse ingresados o al hecho de haber ingresado en media estancia, han estado en situación de reserva, posibilitando la atención o el alta de nuevas personas usuarias.

Las intervenciones anteriormente citadas han supuesto un total de 6.383 sesiones por parte de Agifes y 3.031 sesiones por parte de Aita Menni lo que da un total de **9.414 sesiones**.

A 31/12/2023 se estaba atendiendo a 126 personas, 64 hombres (50,8%) y 62 mujeres (49,2%), con una media de edad de 47 años y 2 meses (mínima 19, máxima 73); y con una antigüedad media en el programa de 3 años y un mes, teniendo un 37,3% más de 4 años de



Gaixotasun mentala / Enfermedad mental

2023ko Memoria

zuten eta % 57,1ek 2 urte baino gutxiagoko antzinatasuna.

antigüedad y un 57,1% menos de 2 años de antigüedad.

Erabiltzaileen diagnostikoei dagokienez, % 50,8k eskizofrenia edo bestelako nahasmendu psikotikoak ditu, % 21,4k nortasun-nahasmendua eta % 12k nahasmendu bipolarra.

Respecto a los diagnósticos registrados de las personas usuarias, un 50,8% tiene esquizofrenia u otros trastornos psicóticos, un 21,4% trastorno de personalidad y un 12% trastorno bipolar.

2023an zehar laguntza psikosozial komunitarioko programan sartzeko 68 eskaera baloratu dira, 54 alta berri eman dira programan, eta 33 pertsonak baja eman dute edo ez dute programa hasi.

A lo largo de 2023 se han valorado 68 solicitudes de acceso al Programa de apoyo psicosocial comunitario, se han producido 54 nuevas altas en el programa, y 33 personas se han dado de baja o no han iniciado el programa.

Lehen aipatutako eskuhartzeak suposatu dute, 4.477 saio egin dituztela Agifeseoek eta 2.441 saio Aita Mennikoek; guztira, **6.918 saio**.

Las intervenciones anteriormente citadas han supuesto un total de 4.477 sesiones por parte de Agifes y 2.441 sesiones por parte de Aita Menni, lo que da un total de **6.918 sesiones**

2.2.5.- MENDEKOTASUNA, DESGAITASUNA ETA GAIXOTASUN MENTALAREN ESPARRUAN ESKAINITAKO ZERBITZUAK

2.2.5.1.- Mendekotasuna eta desgaitasuna baloratu eta diagnostikatzeko zerbitzua

Mendekotasuna eta desgaitasuna diagnostikatzeko zerbitzuak laguntzen du mendekotasun eta desgaitasun egoerak identifikatzen, eta, hala badagokio, haien mailaketa egiten. Orobat, eskatzaileak bideratzen ditu beren beharrezanean ondoen erantzuten dieten zerbitzurantz edo prestazio ekonomikorantz, edota zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen arteko konbinaziora, haiek eskatzeko betebeharrak betetzen badituzte, betiere.

2.2.5.1.A.- Mendekotasunaren balorazioa

2023an **13.014** pertsonak eskatu dute MBB balorazioa, hau da, 2022ko data berean baino %1 gehiago.

2023an **14.049** balorazio egin dira. Pertsona batzuk balorazio bat baino gehiago dute urtean zehar. Baloratutako **pertsona ezberdinak 13.431** izan dira, 2022ko data berean baino %13 gehiago.

Balorazioa egin zaien pertsonen **%61** emakumeak dira eta **%65ak** 80 urte edo gehiago du.

Balorazioak ebazteko batez besteko denbora **61** egunekoa izan da, 2022an baino 46 egun gutxiago. Abenduan, batez besteko itzarote-denbora **45** egunekoa zen.

2.2.5.- SERVICIOS Y PROGRAMAS PRESTADOS EN EL ÁMBITO DE LA DEPENDENCIA, LA DISCAPACIDAD Y LA ENFERMEDAD MENTAL

2.2.5.1.- Servicio de valoración y diagnóstico de la dependencia y la discapacidad

